



GAUEKO OXIMETRIA

Zer da proba hau?

- Zure etxean lo zauden bitartean odoleko oxigeno-maila eta bihotz-erritmoa monitorizatzen eta erregistratzen duen proba da.

Nola prestatu behar dut probarako?

- Proba honetan, oxigeno-sentsorea bat duen matxarda bat jartzen da hatzean, eta matxarda hori **Oximetro** izeneko makina bati konektatzen zaio.
- Hartu oximettoa eta jarraibideak Arnas aparatuko kontsultan.



Zer egin behar dut probaren aurretik?

- Kontsultan, zure ohiko medikazioa hartu behar duzun edo ez adieraziko dizute.
- Oxigenoa erabiltzen baduzu, proba egiten duzun bitartean erabili behar duzun ala ez esango dizute.
- Kendu azazkaletako esmaltea edo azazkal artifiziala (halakorik baduzu), sentsorea jarri behar duzun hatzetik.

Nola egiten da proba?

Presta zaitetz oherako ohiko orduan, urrats hauek eginez:

- Jarri oximettoa eskumuturrean, eta estutu belkroarekin.
- Jarri oxigeno-sentsorea (matxarda) hatz erakuslean (edozein hatzetan jar dezakezu, hatz lodian izan ezik).
- Sartu hatza matxardaren hondoraino, barne-estaldura tolestu gabe.
- Konektatu eta finkatu kablea.
- Sakatu pizteko botoia pantaila pizten den arte, eta utziko ekipoa gau osoan piztuta.
- Saiatu ohi bezala lo egiten.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

- Esnatzen zarenean, luze sakatu botoia pantaila itzali arte, eta kendu oximettoa.
- Ekarri ekipoa arnas aparatuko kontsultara, goizean lehen orduan, ahal izanez gero.
- Kontsultarekin harremanetan jartzeko, deitu zenbaki honetara, 8:00etatik 15:00etara: 945007040.